

## KULTURA

EUSKALDUNON  
AHULEZIAZ  
HONDARRIBIKO  
TOKI-IZENAK  
GALZORIAN

Kanpotik datorren euskaltzale baten-  
tzat harrigarria ere bada Hondarrribian  
bertako toki-izenez nabari den ahulezia.  
Auzo, baserri eta toki-izen jatorrak poli-  
ki-poliki aldatuaz eta galduaz doaz.

**Hondarribia** izena bezala bereganatu  
behar litzuzke Udalak izen horien era  
jatorrak. Batetik, kultur ondare direlako  
eta, bestetik, euskaldunoi, lehendik beren  
izen jatorrak dituzten parajeentzat **Kan-  
piña, Montaña, Iterlimen,**... entzutea  
mingarri egiten zaigulako.

Agiri zaharretan, hiribildua osatzen  
zuen kaletik aparteko herria, orokorki har-  
turik: **Maala** edo **Madalena, Jaizubia** eta  
**Kornus** zen. Bestalde, gure zaharrek,  
ahoz, era honetara bereizten dute bertako  
biztanlegoa: **kaletarra, portugarra** eta  
**baserritarra**.

Okerra zuzentzen ahalegintzeko es-  
kubidea denori dagokigu, baina ahalmena  
eta eginkizuna hiriko agintarien baitan  
dago. Historiak ekarri dizkigun kultur on-  
dasunen artekoa dugu toki-izena, eta, ho-  
rregatik, zaindu beharrezkoa. Gainera,  
hainbeste agiri eskaintzen dizkigun Flo-  
rentino Porturen **Fuenterrabia** (1975)  
monografia hor dugu gida-liburutzat la-  
gungarri har genezakena.

Ezinezko eskarien oihuak maizegi ent-  
zuten ditugu euskararen alde, baina ezer  
guti egiten du euskaldun bakoitzak bere  
hizkuntzaren erabilera eta jatorrasuna  
gordetzen.

Otoi, arazo horietan ez dugu jokatu  
behar erdara etsai balitz bezala. Erdara  
beharrezko zaigu eta errespetatu dezagun.  
Era berean Higer (Higuer) bezalako toki-  
izenak, hain zahar eta sustraituak dire-  
nean, baldin zaharragorik eta jatorragorik  
ez badugu aurkitzen, hala onartu behar  
ditugu, Gaskoinen eraginak utzi zizkigun  
ondare direnez gure kultur-historia osa-  
tzen dute eta ez dugu ukatzerik, iragana-  
ren lekuko aberasgarri denez.

Inor mindu gabe, erarik apalenean  
berreskuratu ditzazkegu gure toki-izen ja-  
torrak. Hortarako, **HONDARRIBIA** aldiz-  
kari honetan txokotxo bat ematen bazai-  
gu, hemendik aurrera zenbait zuzenketa  
proposatuko ditugu.

*Juan San Martin*

## KOSTERARI AGUR?


Urria guretzat zer izan den esateko,  
nahiko ona izan dela aitortu behar. Bazi-  
rudien azkenaldera, kostera erabat buka-  
tu egingo zela, eguraldi txarragatik, baina  
berriro ere arrantzak hasi ziren, eta,  
arraina dagoen artean hor ibiliko gara.

Urrian arrantza onak egin dira, baina  
gaizki saldu, eta saldu gabe ere utzi dugu,  
geroko batean saltzeko asmoz.

## EGUNEROKO IZERDIZ

— **Urriak 1.** Hegamotz haundia ia erabat  
galdu da. Tamaino txikiak bakarrik  
ikusten da. 5 edo 6 kilokoa izan arren,  
salneurri onean saltzen da. Gaur bazi-  
ren 11.000 kilo, 290,90 pztan.

Hegaluzetik, haunditatik 4.000 kg.  
329,70 pztan. eta txikitatik 2.500 kg.  
321,20 pztan. saldu dira.



— **Urriak 2.** Dendetan gauza guztiak go-  
ra, baina gure lana gero eta merkeago.  
Atzotik gaurrera 70 pzt. jeitsi da he-  
gamotzaren salneurria. 24.000 kg.  
saldu ditugu 231,90/213,40 pztan.

Hegaluzetik, 6.000 kg. sartu dira.

— **Urriak 3.** Joan zen urtean garai hone-  
tan, kontserbetarako 400 pztan. ari  
ginen saltzen hegamotoza: Gaur, 315  
pztan. saldu ditugu 7.000 kg. arrain  
haundia, eta 240 pztan. 13.000 kg.  
txikia.

Hegaluzetik, txikia bakarrik atzematen  
dugu, eta gaur 5.000 kg. saldu ditugu  
prezio minimoan, 240 pztan.

Legazketarien 18 ontziek apenas da-  
karte ezer, eta batzuk geratu egin dira,  
beitarako ere egiten ez dutelako.

— **Urriak 6.** Gaur ere prezio minimotan,  
310 pztan. saldu dira hegaluzeko  
45.000 kg., oso urrutitik ekarriak. Ho-  
rietatik 31.000 kg. ontzi batek bakarrik  
ekarri ditu. Ederra arrantza!!! Beste  
12.000 kg. hegaluze txikia, 240 pztan.  
saldu dira.

— **Urriak 22.** Izugarriko problemaz ari  
gara, hegaluzea saldu ezinik. Joanda-  
neko egunetan, 30.000, 40.000,  
60.000 kg. aridira sartzen lonjan, eta  
zer? Hiru lau mila kilo bakarrik saltzen  
dira freskotarako. Beste guztia konje-  
latzen ari gara. Kontserberoek ez dute  
txintik erosten, fabrikak bete beteak  
dituztela eta. Horrela, baditugu he-  
men, Hondarrribian, 500.000 kg. kon-  
jelatuta, kostera bukatuta gero saltze-  
ko esperantzaz.

Bildur naiz, ordea, oraingo salneurri  
minimoan (310 pzt.) ere ez ote den  
salduko gero. Joan zen urtean baino  
aurten askoz gehiago atzeman dela  
kontuan hartzen badugu, jakin ez zer  
gerta daiteken.

Urriaren 19 ezkerro, flota guztia etxean  
dago, eguraldi txarragatik.

— **Urriak 27.** Ontzi bat bakarrik sartu da  
arrantzarekin, eta 15 kilotako hega-  
luzeko 5.500 kg. ekarri ditu, 460  
pztan. salduz kiloa. Ez da prezio nor-  
mala, baina kostera amaituz doala ja-  
kinean, arraina erosi nahi duenak, pa-  
gatu egin behar ondo!

Legazketariak geratu dira eta gorol-  
dioa edo itsas-belarra (alga) jasotzen  
ari dira badian. Badira goroldio ugari  
ateratakoak, 50 pztan. saltzen delarik  
kiloa. Oso estimatua dago, itxura de-  
nez, itsas-belar hau, gero kosmetikako  
produktoak egiteko. Ibilian, Hondarri-  
biko neska gazteak edertuko dira ber-  
tako goroldioaz, Oviedoko fabrika ba-  
tetik igaro eta gero.

— **Urriak 30.** Gaur hegamotozako 9.000  
kg. 430 pztan. saldu dira; eta 1.500 kg.  
hegaluze, 474 pztan.

— **Urriak 31.** Hilabete osoari agur egiten  
diogu, 15.000 kg. hegamotoz 280 pztan.  
salduta. Merkeegi gauza onerako! He-  
galuzea, 4.000 kg. saldu ditugu, 480  
pztan.

*Andres*